



Julen, bere alaba Isabellarekin eta emazte Gabirekin. Julen GIMENEZ SARASQUETA

infraganti

JULEN GIMENEZ SARASQUETA

Hogeita bi urte Euskal Herrikan kanpora eta oraindik ere egunero sumatzen du jaioterriaren falta Julen Gimenez Sarasqueta (Donostia, 1980) musikari eta zinema zuzendariak. Beste proiektu batzuetan jardun eta gero, bere bakarkako lehen lan luzea kaleratu du «Otra vuelta en la montaña Suiza».

Egun Buenos Aires aldean bizi da Julen Gimenez Sarasqueta musikaria. 2020. urtea bukatzerako ateratu zuen «Otra vuelta en la montaña Suiza» izeneko diskoa. Donostiartasunetik eta

herriminetik ere idatzi du diskoa Sarasqueta. Izan ere, 2006tik dabil Buenos Airesen bizitzen. Hartara, argentinari azaldu behar izaten die diskoaren izena edo suitzar mendiaren izenaren jatorria. Baina ez dio inporta, horrela bere hiriaz hitz egiteko aitzia-

kia bezala erabiltzen duelako diskoa. Azken bidaia fisikoki 2019an egin zuen familiarekin Sarasqueta. Fisikoki diogu, egunero herrira bidaiatzen baitu bere baitan. Gabi emaztearekin eta Isabella alabarekin etorri zen eta Igeldoko parkea ezagutzeko baliatu zuten: «Alabari gustatu zitzaion parkea, *belle époque* garaiko kutsua baitu eta, horren ondorioz, bertan denbora gelditzen dela iruditzen zaigu», kontatu digu Sarasqueta.

«La Pesca de hoy» izeneko lana izan zen bakarkako lehendabizikoa eta, disko berrian, «Traducer» edo «La suerte» bezalako kantuetan indie-pop estiloaren esentzia hori mantentzen du. Sidonie edo Los Planetas bezalako taldeak etortzen zaizkigu burura doinu horiek entzutean. «Noise edo indie-pop musika entzuten nuen, El Inquilino Comunista bezalako taldeak nituen gogoko. Gainera, bitxikeria moduan, Bartzelonan bizi nintzenean aipatutako Sidonie taldekoek ondoko lokalean entseatzen zuten. Hala ere, disko honetan distortsioak eta gitarra indartsuagoak sartu ditut, emozioen errusiar mendi batean nabilelako konposatzerako garaian», dio artista donostiarrak.

BARRUKOA ASKATZEA

«La suerte» kantuan itxialdiaz, etxekoekin egoteko zortiaz hitz egiten du, gutxirekin konformatzeaz eta gutxi horrekin gozatzeko gaitasunaz: «Abenduan hasi zen Isabella klasean, astean hiru egunez eta ordubetez baino ez zen joaten eskolara. Internet bageneukan, ura eta argia ere bai, emaztea eta alaba ondoan... Ez nuen ezer gehiago behar». «Mal acumulado»

kantuan errusiar mendiaren kontzeptu hori oso ondo erakusten du, barruan gordetako hori kanporatzearen beharraz hitz egiten du gitarra doinu gozoak eta indartsuak tartekatuz. «Pandemia garaian denok bizi izan dugu krisialdiren bat gure barruan eta amorratuta egon gara. Ez bada kanpora ateratzen, barruan lehertuko denez, hobe barruko hori askatzea», esan digu Sarasqueta.

Kantu berezienetakoa «Curar» izeneko bals azkarra izan da «Otra vuelta en la montaña Suiza» diskoan, eta musika beretzat ere botika modukoa dela kontatu digu: «Joaten direnak ezin ditugu sendatu, baina gure bihotzak bai, eta hori kontatu nahi izan dut kantuan. Barruan edo kanpogan dauden energia eta sentimenduei jarraituz saiatzen naiz konposatzen, ez dut nire burua musika egitera behartzen. Zure barruari eta inguruari entzun eta horri jarraitzea sortzen dira doinurik ederrenak. Abesti hau egiterakoan ez nuen usteko erritmo honetan kantua egiteko gai izango nintzenik eta zain egozteagatik etorri zen kantua. «Curar» egoera gogor batean sortu zen, Gabi nire emaztearen ama zaintzen genuen bitartean. Minbizia zuen eta bizpahiru hilabetez etxean bizi izan zen. Ni ez naiz piano jotzailea, nota batzuk eta koltxoi pixka bat egiten badakit baina gutxi gehiago. Baina nire amaginarreba bai, hark pianoa dotore jotzen zuen. Hemen zegoela piano aurrean eseri eta sortu nuen kantua, baina lehen inpultso hartan Esther, amaginarreba, ari zen jotzen eta ez ni. Gerora ez naiz gai izan kantu hori berri ere jotzeko eta piano jotzaile bati deitu behar izan



NMR Streaming Festival Internacional-en, «Otra vuelta en la montaña Suiza» lanaren aurkezpenean. Julen GIMENEZ SARASQUETA

nion diskorako grabatu zezan. Berari eskainia dago kantua», kontatu digu hunkituta donostiarrak.

GRABAKETAK ETXEAN

Etxean grabatu du musika ia guztia Julen Sarasquetak. Ekoizle lanetan berriz ere Carlos Abriola bateria jotzailea izan du bidelagun eta hark grabatu dizkio bateriak bere estudioan, baina gainerakoa etxean eginda dago. Sarasquetak jo ditu gainerako instrumentuak eta Gabik eta Isabellak lagundu diote beren ahotsekin. Izan ere, proiektu berria etxean zuen teklatu zaharra Isabella alabak eskatu zionean hasi zen. Horrek bulztatu zuela ikusita, trukean diskoan abesteko eskatu zion

Julenek alabari: «Hamahiru urte ditu Isabellak eta musikarako zaletasuna garatzen eta beste artisten kantuak grabatzen ditu tarteka nire laguntzarekin. Gogotsu nabaritzen zaio eta nik zer esango dut bada, ahots zoragarria du». Gauzak horrela, «Otra vuelta en la montaña Suiza» osatuko zuten abestien demoak Abriolari bidali zizkion eta horien gainean bateria grabatu eta bueltan bidaltzen zion Sarasquetari. «Askorentzat bi-

Barruan edo kanpoan dauden energia eta sentimenduei jarraituz saiatzen naiz konposatzen. Zure barruari eta inguruari entzun eta horri jarraika sortzen dira doinurik ederrenak

22 urte Euskal Herritik kanpo, «ispiluaren aurrean jarduten dut euskaraz, lagunekin hitz egiten dudanean ere bai. Bestela, irratia entzunez edo irakurriz jasotzen dut euskara»

txia izango da, baina teknikak distantziara lan egitea baimentzen du eta horrela egin dugu lan Abriolak eta biok orain artean», dio Sarasquetak. Behin bateria hotsak jasota, berriz ere guztia grabatu, estudiora bidali eta nahasketak egin ostean «Otra vuelta en la montaña Suiza» kaleratzeko moduan zeukan Sarasquetak.

Aita-alaben arteko lan hori aberasgarria suertatu zaio gainera Sarasquetari eta etxe-

an musikak duen garrantzia erakutsi dute «Salsón of a bitch» izeneko kantuan. Isabellak Juleni musika berrirako bidea ireki diola kontatu digu eta normalean gogoko ez duen musika estiloak entzuten hasi dela alabaren eskutik, bere mugak zabalduz. «Kritika moduko bat egiten dugu kantu honekin, baina aldi berean musika berria niregana nola iritsi den kontatzen dut modu ironikoan eta musikarekin jolastuz. Aitonak Beatles entzuten zuen bitartean ni bestelako musika entzuten egoten nintzen eta hura kentzeko nola esaten zidan gogoratzen dut kantu honekin. Niri ere halako zerbait gertatu zaidala uste dut. Ez ote naiz nire aitonaren pare-

koa izaten ari? Orain alabaren musika entzutean zerbaitega-
tik etortzen zait irudi hura
burua», esan digu umoretsu
Sarasquetak.

BATETIK BESTERA MUSIKA LAGUN

Bartzelona, Buenos Aires edo
Donostian ibili da murgilduta
musikaren munduan, eta non
dagoen musikarako aukera
gehiago galdetuta, ez dauka
argi. «Eszena handiagoa da
askoz ere Bartzelonan edo
Buenos Airesen, baina batzue-
tan Donostia bezalako hiri ba-
tean aukerak sortu daitezke.
Buenos Aires Hego Amerika-
ko hiriburu kulturala da eta
berez eszena handia dago.
Ongi moldatu naiz eta auke-
rak izan ditut bertan. Baina
orain pandemiak hiri guztiak
berdinak izatea ekarri du. Ba-
nituen kontzertu asko lotuta,
baina guztiak bertan behera
geratu zaizkit», esan digu do-
nostiarrek.

Bartzelonan bizi izan zen
garaian The Tea Servants tal-
dean aritu zen eta gerora Ste-
ven Munard taldekidearekin
ere musikan aritua da. 2003ko
Benicassimgo Nazioarteko
Jaialdian, FIBen, jotakoa da
besteak beste Sarasqueta. Bai-
na gerora Argentinarako bi-
dea hartu zuen maitasunari
jarraika. «Zinema zuzendaria
naiz eta hainbat lan egin di-
tut. Hartara, Alfonso Sastre
idazlearekin proiektu baten
inguruan hitz egiteko geratu-
ta nintzen Donostiako Udabe-
rri kafetegian. Ez zen agertu,
baina Gabi agertu zen bertan.
Ez dakit nola hizketan hasi gi-
nen, Koldo Mitxelenako era-
kusketa bat ikustera joan gi-
nen gero eta gaur arte»,
gogoratu du Sarasquetak.

ISPILUAREN AURREAN, EUSKARAZ

Euskal Herritik kanpora 22 ur-
te eramanda euskarari euste-
ko sekretua non dagoen galde-
tuta, zera erantzun digu:
«Ispiluaren aurrean jarduten
dut euskaraz, lagunekin hitz



Familia Aumentada taldearekin: Alejandro Sickorsky, Gerardo Martinez Argibay eta Diego Parra. Julen GIMENEZ SARASQUETA

egiten dudanean ere bai. Bes-
tela, irratia entzunez edo ira-
kurritz jasotzen dut euskara.
Badaude bizpahiru Euskal
Etxe Buenos Airesen eta ko-
munitatearen eguna ere bada-
go, baina ez naiz gehiegi hur-
biltzen bertara. Dena dela,
esan beharra dago familian
ospatu genuen lehendabiziko
danborrada Buenos Airesko
Avenida de Mayon izan zela.
Aurten ez da egin, baina ETB-
ko 'Eztabaidan' saiorako bi
makila hartu eta zutabe bat jo-
az bideo bat grabatu nuen Eus-
kal Herriko jendearentzat»,
kontatu digu donostiarrak.

Argi dago Donostia oso ba-
rruan daramala Sarasquetak
eta opari moduan Mikel Labo-
aren "Gure bazterrak" kantua-
ren bertsioa ere egin du: «An-
tigan hainbat urtez bizi izan
nintzen eta egunero-egunero
ikusten nuen Matia kalean
Mikel Laboa. Oroitzapen ho-
riek gogoratuz eta berari ome-
naldi xumea eginaz bururatu



Sarasqueta & Familia Aumentadaren lehenengo kontzertua. Julen GIMENEZ SARASQUETA

zait bertsio txiki hau egitea». Izan ere, nahiz eta han ongi eta pozik dabilen, Donostia eta Euskal Herria egunero su-
matzen ditu faltan. Gainera,

pozarren joko luke hirian kon-
tzturtaren bat. Diskoarekin
landu duen irudia kontuan
hartuta, ziur donostiar asko-
ren bihotzetara iritsiko dela.

Sarasquetaren Bandcamp ata-
rian dago bai entzuteko, bai
digitalki erosteko aukera. •

Iker Gurrutxaga